

Formatuak axola al du?

Saiatu naiz zutabea txioen formatuarekin idazten. Ez dut lortu. Porrota. Baina berdin da, malgua izan eta hibrido batekin kontentatuko naiz.

Urteak dira H.rekin hizketaldi onik izan ez dudala. Nitaz duen erretratu mentalaren azpigitulua konbertsaziorako ezinezko bihurtu den ama.

H.: *Open mike*-etan aurkitzen ditudan gazteekin hitz egiten saiatzean, like-bo-toia eta komentario laburrak jasotzen ditut. Pantailan bezala.

H.: Telefonorik esku artean ez dutenean ere, telefonoz ari balira bezala komunikatzen dute. Super jatorrak, baina ez dira gatazkarako gai.

20 urte ingurukoaren artean tipo bat: gizabidetsua, adeitsua, trebea dena manera onak erakusten. Esajeratuz, horixe da ondoen egiten dakiena.

Ez dut esango ez dela abilezia bat, gaitasun garrantzitsu bat. Baina egoera batzuetan nazkantea izan daiteke. *Post millenial* ez denarentzat.

Online komunikazioak ezin du neutroa izan, norabide batean edo bestean desbideratu behar du hizkuntzak. Bi aukerak: Bortitza edo adeitsua.

Ez dakit nola izango den gazte euskaldunen artean, ez dut kontakturik haiekin... Hemen ere gutxi. Kokatzeko: H. +50, ni -40, gazte ± 20 / *iGen*

Belaunaldien arteko harremanak... Non topa daitezke *iGen*-eko kideak? Familia-inguruan, bikotearen edo lagunaren seme-alabak, unibertsitatean.

Arte irakasle bat bere 23 urteko ikasleekin internetik gabeko etxe batean lau egunez. Gaia: Asperdura. Irakasleak dio: Ez dakite zer den.



Irati Elorrieta

IDAZLEA

Brecht-en gutunetan: asper-asper eginda dagoela. Benjamin: "Asperdura da ekintza handietarako atalasea". Zertara datoz Brecht eta Benjamin?

Bien adiskidetasunari buruzko erakusketa bat dago Berlinen. Bere kutsu fantasmagorikoagatik, zentzu onean, burutik kendu ezinik dut eta, pertsona errealekin izandako elkarriketen erdian haien bien arteko harremanaren inguruko gogoetak zeharkatzen zaizkidan bezala, hemen ere sartu zaizkit zirrikituren batetik. Leku piska-piska bat egingo diet.

Nola egin ziren lagun? Benaminek lagun komun bati Brecht aurkezteko eskatu zion. Lehen topaketa ez zen bereziki ondo joan. Beren inguruko askok ez zuen harremana ulertzen. Froga gisa, ondorengo kalifikatzaileak: zorigaiztokoa, katastrofiko, asimetrikoa. Gakoak diren bi aipu irakur daitezke: Lehiarik gabea zela adiskidetasuna eta ez zuela iraungo bien gizalege adeitsuagatik izan ez balitz. Adiskidetasun "arriskutsu" baten emankortasuna ikus daiteke museoa. Bi gizonek ez diote beldurrik beren denborakoak ziren gaiei buruz eztabaidatzeari: faxismoa, sexualitatea, marxismoa, Stalin, Kafka.

Museoko objektu bilakaturik, agian, adeitasunak murrizten ez duen sakontzeko gaitasuna.

Horretaz gain, harremanaren aztar-na fisikoetan: originalen indarra. Idaz-makinaren lorratza paperean. Eskuz idatzitako gutunak eta oharrrak.

Txio berriek 280 karaktere. (Hemen go txio-itxurakoek, duela gutxi arte bezala, 140). Benjaminen anbizioa: 100 letra koaderno-orri batean.

Gerra batek markatu zituen haien bizitzak. "Smartphone"-ak eta sare sozialek markatu dute *iGen*. Belaunaldi bakoitzak bere tsunamia bizi du. ■



Antton Olariaga